


LATEORROKO ERABILERA ANITZEKO ARETOAREN ERABILERAK DEFINITZEKO PARTAIDETZA PROZESUAREN TXOSTENA

2010



SARRERA

LAN PROPOSAMENA

ZABALDUTAKO KULTURA KONTSEILUAREN TXOSTENA

HERRITAR ETA AUZOENTZAKO AURKEZPEN PUBLIKOAREN SAIOAREN AKTA

INFORMAZIO KARPEN EMAITZEN TXOSTENA

ERAKUNDE SOZIOKULTURALEKIN EGINDAKO BILERAREN AKTA

LATEORROKO AUZOTARREKIN EGINDAKO BILERAREN AKTA

SINADURA BILKETA

AZKENEKO BILERAREN AKTA

ONDORIO ETA ERANSKINA

SARRERA

Erabilera anitzeko aretoaren proiektuaren hasiera, oso era laburrean azalduta, Laudioko biztanleriaren behar kultural eta aisialdiko beharrak asetzeko balioko duen aretoaren kokapenaren gainean talde politikoen arteko desadostasunean du sorrera. Gauzak horrela, udaletxeko osoko bilkuran lekurik aproposena Alzarraten Latorroko auzoak eskaintzen zuena zela erabaki zen. Ondoren, eta proiektu honetarako lortutako diruarekin – estatu mailako milioi bat €-tako diru-laguntza- proiektuaren erredakzioa agindu zen.

Behin Espinet-ek zuzenduriko Kataluniako proposamena aukeratuta eta ezagututa, Latorroko asanbladaren lan taldeari aurkeztu zitzaion. Egindako aurre-aukeraketaren arrazoiak azaltzea zen bileraren helburua. Bilera honetan – 2009ko Ekaina- galdera eta iradokizun ugari egin baziren ere, orokorrean oso positiboki baloratu zen proposaturiko ideiak planteatzen zuen hirigintza irtenbidea, eta esan daiteke orokorki proiektua gustukoa izan zela.

Aldi berean, eta baita 2009ko ekainean ere, erabileren gaineko parte hartutako ekimen bat irekitzeko ideia sortu zen.

Ordutik aurrera asko izan dira ekimena aurrera nola eraman behar den definitzeko egindako bilerak:

- Talde politikoeekin bilerak
- Ekimenaren aurkezpena eta eztabaida Auzo Asanbladen jarraipen batzordean

Bilera hauen ondorioz behin betiko proposamen bat definitu genuen, zeinean azken hilabete hauetan egin ditugun bilera eta ekintzen multzoa barne hartzen zen.

Txosten honek 2009ko Abenduaren 28an ospatu zen Kultura Kontseilu irekian proiektuaren erredakzio taldeak egindako aurkezpenean du hasiera. Hori izan zen, gure iritziz, hasierako erabilera oso konkretuak definitzen zituen proiektu baten sozializazioaren eta eztabaidaren hasierako unea, elkarre eta eragile askori irekitzen zitzaizen eztabaida, eta baita zalantza beteriko eztabaida izango zena.

Lehen aipatu dugun proiektuaren balorazio positibo horrek kontsultarako sasoi guztian zehar antzeman den sentipena izan da. Orokorrean gure iritzia jendeak proiektua gustuko duela izan da. Honek ez du esan nahi kontrako jarrerarik egon ez denik, bai bere tamaina zein aurreikusitako bere erabilerari dagokionean. Sentsu honetan prozesuan parte hartu duten pertsonak zer esan asko izan dute eta beren iradokizun eta proposamenak egin dituzte.

Prozesu honetan mila pertsona inguruk hartu dute parte guztira, inplikazio maila ezberdinekin:

1. Ehun eta laurogei pertsona inguruk, maila pertsonalean edo erakunde kulturalen ordezkari gisa, zuzenean hartu dute parte prozesuan beren gogoetekin eta inplikazio maila altu batekin,
2. 700 pertsona baino gehiagok 2010 urteko martxoan herrian kokaturiko karpetan informazioa jasotzera hurbildu ziren, eta haietako batzuek beren ekarpen eta iradokizunak idatzita utzi zituzten bertan.
3. 600 pertsona baino gehiagok gizarte aretoari garrantzi gehiago eman ziezaion eskatuz beren sinadurak utzi zituzten, espazio horri izaera publikoa, irekia, belaunaldi artekoa eta erabilera anitzekoa emateko eskatuz. Areto hau, eztabaidan zehar, proiektuan kafetegiarentzako proposaturikoa izatea eskatu zen.

Parte Hartuz-ek auzo asanbladen Jarraipen Batzordeari aurkezturiko proposamenean, gerora batzordeak berak onarturiko proposamena berau, zenbait helburu estrategiko proposatzen ziren. Helburuak hurrengoak ziren:

1. Guztien artean etorkizuneko aretorako erabilera gogokoenak definitu.
2. Asanblada eta bere sareak kultura kontseiluarekin lotu.

3. Auzo Asanbladen parte hartze esparruak indartu.
4. Eztabaidagune ahoetara elkarte eta pertsona gehiagorengana hurbildu.
5. Diktamenak egin (kultura kontseilua) edo erabakiak hartu (korporazioa) behar dituztenen eskuetan prozesuaren ondorioak utzi.

Sentsu honetan, eta gure iritziz, txosten honetan jasotako ekarpenak bere baloraziorako kontutan hartzeak proiektuaren erabileren gaineko partekatutako definizio batera hurbiltzen gaitu. Nolabait, asanbladetako parte hartze esparruak, batez ere Lateorro auzokoa, eta Kultura Kontseiluko berezko diren espazioen arteko hurbilketa bat eman da eta baita harremanetarako aukera, ikuspegi ezberdinetatik abiatuta eztabaidak eta ardurak elkarbanatuz. Eztabaidarako esparruetara pertsona ezberdin gehiago hurbiltzeko aukera egon da, eta ondorioz beren iritzi eta ahotsak entzunak izateko aukera egon da. Eta, azkenik, udaleko ordezkari politikoek beren erabakiak hartzeko orduan informazio gehiago eta hobetua izango dute, kasu honetan Erabilera Anitzeko Aretoren gaineko informazioa. Hau da hamar hilabeteren buruan gauzatutako partaidetza prozesu baten emaitza. Proposatutako aukeren artean badira babes gehiago jaso dituzten zenbait iradokizun, eta besteek izan dezaketen garrantzia ukatu gabe, segidan azaltzen ditugu nabarmendu diren ideiak:

- Udalerrian arte eszenikoekin eta musikarekin harremana duen bizitza kulturala aintzat hartuz – Santa Luzia Korralaren ekimenaren ondorioz fundazioak bultzaturiko eskola barne-, interesgarria litzateke erabilera anitzeko aretoak batez ere diziplina hauetarako egoitza bihurtzea, arte plastiko eta artisautzarekin harremanaturiko alorrak egungo beren egoitzetan mantenduz, -eraikinen eraberritzearen ostean- Lamuza parkean.
- Espazioaren kontzepzio anitzaren baitan, kontuan izan beharko litzateke eraikinean bertan espazio publiko, ireki, anitz, irisgarria, hurbil eta belaunaldi artekoa egotea, norbanako mailan zein kolektibo bezala espazio horretaz gozatzea posible egingo duena. Espazio hori kafetegitik has liteke, gizarte bizitza dinamizatuko lukeena, gaur egun Aretako Gizarte-Kultura etxean edo Jubilatu Etxean ematen den bezala. Ideia hau hainbatetan errepikatu da herritarrekin aurrera eramandako eztabaidetan.

Jarraian lanerako proposamena eta eztabaida prozesu honen baitan egindako bilera ezberdinen aktak aurkezten ditugu:

LANERAKO PROPOSAMENA

Definizio eta helburuak

Udalerrian Erabilera Anitzeko Areto bat eraikitzeke proiektua estrategikoa bihurtu da eta herritarren gehiengoak desiraturiko proiektua egi bihurtzeko geroz eta aukera gehiago ditu. Auzo Asanblada eraginkorragoak lortzeko, **eta batez ere Kultura Kontseilua** eraginkorragoa lortzeko aurrera eramaten ari garen lan honetan proposamen honek herriko biztanleriaren parte hartzea errazten du, elkarturik zein norbanakoen kasuan, etorkizuneko erabilera anitzeko aretoaren erabileren definizioan.

Proiektuaren helburua:

- Herritarren desio eta behar izanei lotuago dagoen proiektua egiteko herritarren ekarpenak bilatu.

Helburu operatiboak:

- Guztien artean etorkizuneko aretorako erabilera* desiratuenak bilatu.
- Asanbladak eta bere sareak kultura kontseiluarekin lotu.
- Auzo asanbladen esparru parte hartzaileak indartu.
- Esparru parte hartzaile hauetara elkarte eta pertsona gehiago hurbildu.
- Diktamenak egin (kultura kontseilua) edo erabakiak hartu (korporazioa) behar dituztenen eskuetan prozesuaren ondorioak utzi.

* Erabilera bezala batez ere aretoan aurrera eraman beharreko ekintzak ulertzen dira.

Lan Metodologia

1- Talde dinamizatzailearen formakuntza (Urtarrilaren 20aren aurretik):

- a. PH taldeari azalpen teknikoak udal arkitektoaren aldetik.
- b. Aurreikusitako erabileren azalpen orrialdeen prestaketa (paperean).
- c. Proiektuaren azalpen diapositibak PPT-en prestatzea.

d. Aurrez azaldutako materialak programaturiko ekimenetan erabiliak izango dira.

2- **Kultur behar izanen diagnostikoa**, Kultur Arloko Zuzendariak egina:

- a. Gaur egunean asetzen diren erabilerak.
- b. Asetzen ez diren eskaerak.
- c. Eskura dauden azpiegiturak.

3- Diagnostiko honetatik abiatuz, bilera parte hartzaileetan **bi ildotan** lan egingo da:

- a. Eraikin berriak hasiera batean asetu beharreko proposaturiko beharrianak.
- b. Beste udal espazioetan asetu beharko diren behar izanak

eta hurrengo bi galderei erantzun beharko diena:

BILERETAN PLANTEATUKO DIREN GALDERAK HURRENGOAK IZANGO DIRA:

Zein ekintza egon behar dira zure ustez areto berrian?

Zer egin daiteke eraikin berrian sartzen ez diren jarduera guztiekin?

4- Fase honetan **aurreikusitako emaitzak**:

- a. Gaur egunean dauden behar kulturalen gaineko jarrerak.
- b. Erabilera anitzeko aretoak bete beharreko erabilerak.
- c. Beste udal espazioetan asetu beharko diren behar izanak.
- d. Erabilera anitzeko eta "ardatz kultural" delakoaren gaineko erabakiak hartzeko interesgarria izan daitekeen informazioa.

Nortzuk hartzen dute eztabaidaren parte

TALDEKAKO PARTE HARTZEA:

- Kultura Kontseiluan parte hartzen duten pertsonak

- Hurrengo kultur elkarteetatik bina pertsona (ikusirik eranskina).
- Auzoetako talde bakoitzetik bina pertsona.

NORBANAKO PARTE HARTZEA:

- Interesa duen edozein pertsona (Erabilera anitzetarako aretoan egindako aurkezpena eta Erakusketa Ibiltaria)

Pertsona guzti hauei aldeztu aurretik proiektuaren gaineko informazioa, oinarri dituen hasierako beharren eta gaur egun asetzen diren beharren mapa luzatuko zaie.

Bilera kopurua eta hauen helburua

- **Aurkezpen publikoa. Proiektua azaltzeko lehenengo bilera**, eta baita bera justifikatzen duen beharrezko programa. (Kultura kontseiluan egindako bileraren antzeko saioa, baina jende gehiagorekin). Saio Irekia.

Lekua: Udaletxeko erabilera anitzetarako aretoa.

Data: Urtarrilak 20 eta Otsailak 15aren bitartean.

- **Esparru parte hartzaile bakoitzean informazio eta lan Fasea**, auzoetako lan taldeetan eta elkarte sozio-kulturaletan informazioa kudeatuz. Elkarrekin eta auzoetako taldeek beraiek kudeatuko dute informazioa (10-15 egunetan zehar). [epeak handitu litezke]
- **Proiektuaren gaineko informazio erakusketa**. Aldaikoko Karpan, Latorroko arkupeetan, Zumalakarregin edo beste espazioetan erakuts litekeen informaziorako materiala.

Data: Otsaileko 2. hamabostaldia.

- **Udalerrri mailako beharren mapa** eztabaidatu eta adosteko bilera, eta baita eraikin berriak jaso beharrekoak eta beste espazio batzuetan kokatu beharrekoak. Parte Hartuz-ek dinamizatua eta parte hartzaileen atalean azaltzen diren elkarten aldetik bina pertsona bertaratuko diren saioa, eta baita erakusketa interes berezia azaldu duten pertsonak ere.

Datak: Martxoko 1.go hamabostaldia

- Korporazioko talde politikoeekin bilera herritarren lan taldeak landuriko emaitzak politikariein aurkezteko.

Datak: Martxoko 2. hamabostaldia.

- Herritar, teknikari eta politikarien arteko bilera adostasunak eta desadostasunak azaltzeko.

Datak: Martxoko 2. hamabostaldia.

Prozesua bukatu ondorengo hilabetean azkenengo txostena egitea (apirila). Txostena kultura kontseiluari eta korporazioari emango zaie.

1. ERANSKINA

PRIEKTUAREN INFORMAZIO ERAKUSKETARAKO PROPOSAMENA

Definizioa:

Informaziorako eta proposamenak eta iradokizunak biltzeko espazio publiko bat irekitzea litzateke helburua. Espazio honetan proiektuaren inguruko informazio grafikoa erakutsiko litzateke; irudiak, proiektuaren eduki orokorra laburbilduko luketen azalpen testuak. Horrez gain erakusketa horretan interes gehien izan dezaketen pertsonentzako parte hartze espazio txiki bat ireki liteke (iradokizunentzako postontzia, ekarpenak eta komentarioak egiteko panela). Espazio hau jendeari irekirik bi egunetan jarraian mantendu liteke, udalerrri lekuren batean edo bitan (aldaikoerreka, latiorro, zumalakarregi...)



Ekimenaren helburua:

Proiektuaren barruan parte hartze espazio bat irekitzea, era erraz batez herritarren gehiengoari iristea posible egingo duena, proiektua hobetu ezagutzea eta behar izatekotan haren gainean bere iritzia ematea.

Zer lortu nahi den guzti honekin:

- Pertsona gehiagori proiektua ezagutaraztea.
- Proiektua kalera eta ondorioz herritarrei hurbiltzea.
- Informazio eta partaidetza espazio bat eskaintzea, ahalik eta irekien eta irisgarrien.
- Iradokizun eta ekarpen gehiago jasotzea.
- Prozesua eta bilerak ideia eta pertsonaz elikatzea.
- Partaidetza modu honengatik baina ez besteengandik erakarriak suertatu daitezkeen herritarren partaidetza posible egitea.

KULTURA KONTSEILU IREKIAREN AKTA



Kultura Kontseiluak deiturik eta Miguel Espinet-en azalpenekin, Erredakzio Taldearen partaidea bera, 2009ko abenduaren 28an, 20:00etan, Laudioko Udaletxeko Pleno Aretoan Erabilera Anitzeko proiektuaren gorabeherak ezagutu ahal izan genituen.

Bilerara, Kultura Kontseilua bera osatzen duten pertsoez gain, hainbat elkartetako jendea – Arte eskenikoen talde bat, Solastiar, Amalurra Fundazioa eta Arloteak bertaratu ziren beste batzuen artean- eta Auzo Asanbladen Jarraipen Batzordera joaten diren pertsonak auzoen ordezkari gisa gonbidatuak izan ziren -zeinetatik Latorro, Ugarte eta Erdiguneko pertsonak bertaratu ziren-.

Orotara Erabilera Anitzeko proiektua ezagutzera **30 pertsona** inguru gerturatu ginen. Behin bileraren helburua ez zela jarrera bateratu batera iristea, baizik eta proiektua ahalik eta hobekien ezagutzea, bileraren hurrengo atalera pasatu zen


AZALPENA

Eraikina, denboran zehar adostuz joan den programa batean du jatorria, eta helburu bikoitz bat betetzen du:

1. Funtzioa:


1. maila altua / ertain-altua duen ekipamendua (auditorioa): antzerkia, opera, entseguak, zinema edo biltzarrak eta antzeko ekimenak egitea posible egiten duen espazioa.

2. Bere lehenengo solairuan tamaina ezberdineko aretoak eta argazkilaritzarako eta keramikarako espazioak dituen ekipamendu kulturala edo gizarte etxea, eta bere bigarren solairuan liburutegia, mediateka eta ikasketetarako aretoak.



2. Urbanistikoa:

Bi enparantza izango dituen espazio publikoa, maila ezberdinetan, beheko mailan Kamaraka kalean zehar luzatzen dena, goiko mailan babes ofizialeko etxearen arkupeetan barrena. Beheko enparantzaren anfiteatro ireki batekin osatzen da, ehun pertsonarentzako gaitasunarekin, geltokira, erre kara eta elizara irekirik.



GALDERENTZAKO TARTEA

- Kamaraka kalerako sarrerako lorategietan, lur azpian, ondoko etxebizitzetako propano gordailuak kokaturik daude. Hau izan da kontutan? *Eran: Bai, arazo hau kontuan izan da eta proiektua aurrera eramateko obrek ez dute beraietan eraginik izango.*
- Goian sortzen den plaza, Babes Ofizialeko etxebizitzaren zoruaren maila berean kokatuko da? *Eran: Bai, espazioa diseinatzean konektaturiko espazio bat bezala ulertzen da.*
- Zeintzuk dira eraikinaren zutabeen materialak eta zein da beren mantenua? *Eran: Aluminiozkoak dira hiru kolore ezberdinekin trataturik. Ez du mantenu berezirik behar. Azalerak behar duen mantenu bakarra kristalen garbiketa da.*
- Erabilera anitzeko aretoa egun berean emanaldi ezberdinak egiteko aukera ematen al du? *Eran: Areto edo auditorio nagusi bat du eta entseguetarako areto bat, antzezlan txikiei egokiturik, nagusiaren aldamenean. Horrez gain, auditorio nagusia egun berean emanaldi bat baino gehiago izan lezake, baldin eta biak antzerkikoak ez badira, honek suposa ditzakeen kudeaketa arazoak direla eta. Egia esan erabilera ugari eta era oso ezberdinekoak jaso ditzake.*
- Kafetegi-taberna aretoaren independentea da? *Eran: Aretotik sarrera zuzena dago, baina independenteki funtzionatzeko prestatua dago.*
- Lur azpiko aparkalekuak egiteko aukera aztertu al da? *Eran: Egindako ikerketa geologikoak beheko solairutik sakonera gutxira harkaitza dagoela eman du aditzera. Aparkalekua egiteko sakonago zultzeak arriskutsua izan daiteke, beste etxebizitzaren gertutasunagatik, eta horrez gain kostua asko handituko litzateke. Guzti horregatik proposamen hori ez da posible. Beste alde batetik aparkalekua ez litzateke oso handia izango, sarrerak oso konplexuak izango lirateke eta isolatzeko sistemaren indarketa bat egin beharko litzateke. Ez da beraz gauzagarria ez ekonomikoki ez eta teknikoki ere, eta ondorioz ez planteatzea gomendatu da.*
- Eraikinaren ekologiarri eta segurtasunari dagokionean. *Eran: Eraikin hauetan ebakuazio protokolo zehatzak egoten dira, eta zalantzarik gabe bete egiten dira. Eraikinaren ekologiarri edo jasangarritasunari dagokionean aldiz, uren bilketa sistema bat ezarri da, nahiz eta bere funtzioa definitzeko dagoen. Eraikina kontsumo energetikoa aurrezteko gaitasun handia dauka (argiztapena eta aire girotua), baina egia esan oso eraikin sinplea da. Eraikin konplexuagoetan errendimendu ona atera ahal izateko teknikari adituak behar izaten dira. Orokorrean jasangarritasun eta praktikotasun irizpideetan oinarritutako eraikina da.*
- Zein da proiektuaren aurreikusitako kostua? *Eran: 12 milioi euro inguru, eszenografia*

ekipamendua, altzariak,... barne, hau da, eraikinaren kostua erabiltzeko baldintzetan utzita.

- *Inguruko aparkalekuen eskaintza indartu beharko litzateke, RENFE aurrean dagoen malda aprobetxatuz. Eran: RENFE-ren maila berean kokatuko litzatekeen aparkaleku bat eraikitzea aurreikusita dago, eta beste aukerak ere azter litezke.*
- *Zein da eraikinaren altuera eta zenbatekoa da bera eta babes ofizialeko etxebizitzaren arteko distantzia? Eran: Altuera bi solairu eta erdikoa da (hiru solairutako egiazko altuera), eta distantzia 17 metrotakoa.*



- *Obren iraupena?. Eran: bi urte inguru.*
- *Ur filtrazioak izateko aukera aztertu al da, kontuan izzanik auditorioa enparantzaren azpian kokatzen dela? Eran: hau ardura tekniko bat izan da. Eraikina era egokian eraiki behar da eta jarraipen bat egin. Isolatzeke geruza bikoitza darama, eta forja bikoitza ere. Kezka gehien sortu duena ordea ez da ura, baizik eta bibrazioak eta zarata. Areto akustikoa erabat isolaturik dago.*
- *Eskualdeko biztanleria kontutan izanda, nahiko al da 435 eserleku kopurua? Eran: Espazioak baldintzatu du kopurua, eta gehinera jo nahi izan da. Erabilera anitza duten aretoak 400 eta 600 eserleku bitartean ibiltzen dira. Zinearentzako gehiegizko kopurua da. Antzezlan handientzako*

eskas gera liteke, baina hobe da “antzoki bete bat antzoki erdi-huts bat baino”. Gutxitan beteko da aretoa guztiz. Bestalde, gaitasun handiko antzoki bat azpiegitura aldetik askoz exigenteagoa da, eta horrek proiektua garestitzea dakar. Irizpide hauek aurkezpenera bertaratutako eta arte eszenikoekin harremana duen pertsona baten irizpideekin bat egiten du.

- Zer erabilera izango dute entseguetarako aretoek? *Eran: 2, 3 edo 4 pertsonentzako daude pentsatuak eta musikara zuzenduko dira. Auditorio alboko aretoa entsegu eta errepresentazio txikietara zuzenduko da, 80 edo 90 ikuslerentzako eta 300 metroko zabalerakoa. Anfiteatroa mugikorra da.*
- Eraikinak sektorizatu daitezke? *Eran: Bai, hori ere kontuan hartu da. Eraikin edo sekzio bakoitza behar denetan jarriko da martxan.*
- Auzoarentzako gizarte etxea kontuan izan da? *Eran: ekipamenduak gizarte egoitza bat jasotzen du topaleku bezala erabilia izateko, eta baita kafetegia berak izan dezake erabilera hori. Gehiago zehaztu daiteke.*
- Azkenik ere galdetu zen ia noizko litzatekeen posible proiektua bukatua ikustea.



ERABILERA ANITZEKO ARETOAREN PROIEKTUAREN AURKEZPEN PUBLIKOA ETA HAREN GAINEAN EGINGO DEN PARTAIDETZA PROZESUAREN AURKEZPENAREN AKTA

AURKEZPEN OROKORRA

2010eko Otsailak 18

Parte Hartuzek, Laudioko udalarekin hitzarmenean Auzo Asanbladen bitartez herritar partaidetza sustatzea helburu duen EHUko lan taldeak, erabilera anitzeko aretoaren gainean martxan jarritako egitasmoa azaltzen du.

Horrela azaltzen du nola jende gehiagori irekiriko Kultura Konseiluaren aurreko bilera batean proiektuaren Erredakzio Taldeak egindako lana aurkeztu zuen. Hasitako ekimen horren bigarren urratsa beraz, egun honetan egiten zen aurkezpen publikoa da, zeinean udal arkitektoak, Fernando Heviak, diseinuaren gaineko eta aurreikusitako erabileren hasierako definizioen gaineko azalpenak emango zituen.

Hirugarrenik martxoaren 4 eta 5 egunetan zehar Aldaikorrekan eta Latiarron aurrera eramango zen ekimenaren berri eman zen. Ekimen horretan bi kokalekuetan herritarrek proiektuaren gaineko informazioa jaso eta beren iritzia eta ekarpenak utzi zezaketen karpa bana jarriko ziren.

Azkenik ekimena talde kulturek eraikin berriaren proiektuaren gainean beren gogoetak eta iritzia eman eta erabiliren gainean proposamenak eta lehentasunak markatu zitzaizketen bilera batekin bukatuko zela jakinarazi zen.

UDAL ARKITEKTOAREN AZALPENA

Azalpena aukeratutako kokalekuak udalerrian marrazten duen ardatz estrategikoa azalduz hasten da. Sortzen den ardatzak Latorro eta erdigunearen arteko oztopoen ezabaketak sortutakoa indartzen du (ibaia, trenbidea). Horrez gain zeharbide bat sortzen du zeinetan udalerriko garrantzizko espazio eta erakundeak kateatzen dituen: Lamuza Parkea, Lamuza enparantza, Udaletxea, Eliza, Geltokia, Erabilera Anitzeko aretoa, etab...

Ondoren, azalpena diseinaturiko eraikinaren solairuen deskribapenarekin jarraitu zuen, eta horien ezaugarri nagusienekin, jarraian azaltzen direnak:

- Sarrera bi maila ezberdinetatik egin daiteke, sarrera nagusia Kamaraka kaletik izanik.
- Bi enparantzaz osatzen da, goiko bat eta Kamaraka kalearen mailan behekoa.
- Proiektuak ez du aparkalekurik, bere kostu handiagatik eta akustikoki isolatzea asko zailduko lukeelako.
- Beheko solairua da auditoriora, aldageletara, etab... sarrera emango diena. Auditorioak 435 pertsonarentzako aforoa izango du, eta kontzertuetarako 715 pertsonakoa.
- Lurrazpiko solairua entsegu eta aktuazio aretorako aurreikusten da.
- "Altillo" solairuan topaketarako gunean edo gizarte etxea kokatuko litzateke
- Goiko enparantzaren maila berean dagoen solairuan kafetegia kokatuko da.
- Lehenengo eta bigarren solairuen artean tailerra, liburutegia, eta abar kokatuko dira.
- Bi enparantzen arteko lotura egiten duen aldapatxoa dago.
- Ereku konkretu batean urbanizazioa berriz egin behar izango da.

GALDERETARAKO TARTEA

Gainontzeko eraikinekiko distantzia, altuera eta proiektuaren bolumena

Tarte ireki honen lehenengo zatian egindako galderak eraikin berria eta ondoan geratzen diren etxebizitzaren arteko distantzietan eta izango duen altueran (baita era atzeko etxebizitza eraikinarekin harremanaturik, argitasunean sor ditzakeen galerak direla eta) zentratu ziren bereziki.

Udalaren erantzuna eraikina 16 metro ingurura kokatuko dela izan zen, distantzia nahikoa, beraien iritziz, eta altuera gutxi gora behera ondoko eraikinekiko laugarren solairuaren berdina izango da. Ontzat jotzen da orain etxe aurrean eremu ireki bat dutenek espazio horren galera izango dutelako ideia, baina aldi berean uste da beren egoera hobera egingo duela, espazio berri horrek auzoa zein herriarentzako suposatuko duen onura dela eta.

Eraikinak izango duen bolumenaren gainean eztabaida sortu zen azken urteetan Hirigintza Antolamenduaren Planean egin den tramitazio eta definizioaren inguruan. Batzuen aburuz eraikinaren bolumentria behin atzeko etxebizitzak definitu ostean egin zen. Bestalde, esanda geratu zen ere Erabilera Anitzerako Aretorako aukeratutako proposamena aurkeztutakoen artean bolumen txikiena zuena zela.

Kokapena

Orokorrean bertaratutakoek distantzia eta altuerekin beren desadostasunak agertu zituzten.

Gero proiektuaren inguruko epeak, finantziarioa eta obra egiten ez den bitartean eremu horrek izango duen bilakaeraren inguruan egin ziren galderak.

Udalaren erantzuna proiektua tramiteetan dagoela izan zen, epe luzerako proiektua dela eta bere aurrekontuak suposatzen dituen 14 milioi euroak lortu behar direla. Obrak hasten ez diren bitartean aurrekontuaren kopuru bat Latorroko sarrerako hall-a konpontzera bidera litezkeela orubea konpontzeko adierazten da.

Azkenik txanda hau bukatzeko bertaratutakoetako batek adierazi zuen kokapena eta betetzen duen espazioaren gainean hartutako erabakia ez dela zuzena, ez direla behar besteko aparkaleku aurreikusi eta prozesu honetan parte hartzea nola gauzatuko den zalantza handiak zituela, herritarrei ez baitzaie informazioa luzatu eta berarentzat engainu bat besterik ez dela eta erabakitzezorik gutxi dagoela argudiatuz. Parkeko proiektuarekin beste horrenbeste gertatzen ari dela azaldu zuen.

Parte Hartuz-ek, martxan jarritako partaidetza ekimena udalerriko auzo guztiek, udal teknikariek eta udal ordezkariak daukaten alderdi politiko guztiek osatzen duten Auzo Asanbladen Jarraipen Batzordean eztabaidatua eta onartua izan zela esan zuen.

Udalak, Erabilera Anitzeko aretoaren proiektua parkearenarekin batera gauzatu behar izango dela azaldu zuen, eta partaidetzari dagokionean, alderdi guztiek gai honen gainean eztabaida ekainetik zeramatela eta zenbaitek proiektua konketuagoa izan zedin arte itxaroteko esan zutela azaldu zen.

PROIEKTUAREN AZALPEN KARPEN TXOSTENA.

pasaden otsailaren 18an Laudioko Udaletxeko Pleno Aretoan Altzarrateko Gune Kulturala eta Areto Balioanitzaren aurkezpen publikoaren ondoren, Erabilera Anitzeko Aretoa izenaz ezagunagoa dena, proiektuaren gaineko erakusketa publikoa egin da martxoak 4 eta 5 egunetan Aldaiko Plazan eta Latorron zeregin horretarako karpak jarrita.

Otsailaren 18ko aurkezpen publikoan garrantzi gehien distantziei eta eraikinaren altuera eta bolumenari eman zitzaizen bitartean –ondoko eraikinentzako sortzen zuen oztopoagatik- martxoan zehar egindako azalpenek honako hau eman dute argitzera:

1. Ondo baloratua izan da Aretoak beren inguruko eraikinetara duen distantzien gaineko informazioa, batez ere tokian tokiko konparaketek distantziak hobeto kalkulatzeko posible egin dutelako, batez ere Eskutxi kaleko eraikinek beren artean duten distantzia eta Kamaraka Kaleak Extremadurako egoitzaren altueran kale arteko distantziekin alderatua-9,80 metro eta 12 metro hurrenez hurren. Erabilera Anitzeko Aretoak eta eraikin gorriaren arteko distantzia aldiz 16,50 metrotakoa izango da, eraikin gorria eta zuriaren artean 12,80 metro daude, eta Erabilera Anitzeko Aretoak eraikin zuriarekiko 14 metro izango ditu. Zenbait pertsonak egiten dituzte distantzia hauen gaineko galderak.
2. Nahiz eta zenbait iritzi kritikoak diren Aretoaren diseinuarekin – erabilera zein alde estetiko- eta kokapenarekin, orokorrean esan daiteke gustukoa izan dela proiektuaren erakusketara bertaratutako jende gehienarentzat. Izan ere askotan entzun ahal izan baitira “bai, oso polita, baina noizbait ikusi ahal izango dugu egi bihurtua?”, “guk gozatu ahal izango dugu?” edo “egunen baten ikusiko al dugu” bezalako esaldiak. Gehiengoak atsegin handiz hartuko luke herriarentzako eta auzoarentzako ontzat jotzen den proiektuaren obren hasiera.
3. Erakunde soziokulturalekin harremana duten bertaratutako pertsonen aldetik berriz proiektuari ekarpenak egiteko gogoia izan da deigarriena, hobetzeko asmoz baina baita aretoak izango duen funtzionamendua aztertzeke asmoz eta hortan talde kulturek jokatu duen papera aztertzeke asmoz.

Proiektuaren erakusketa publikoak iraun dituen bi egunetan 700 pertsona baino gehiago pasatu dira bertatik, eta haietako zenbaitek (36) beren ekarpenak ere idatziz utzi zituzten planoak hobetu ulertzeko utzitako orrietan. Hauek dira utzitako ekarpenak:

KARPETATIK PASATAKO 700 PERTSONETATIK, GUTXI GORA BEHERA %5-AK BERE EKARPENAK IDATZIZ UTZI ZITUEN

ERDIGUNEA		LATEORRO	
Balorazio positiboak eta/edo hobekuntzak			
Oso ondo dago	23	Ona eta Latorrorako garrantzitsua	7
Egunero hobetu ahal izango den proiektu berritzailea iruditzen zait	1	Latorroko bizilagunak eta merkatariak kontutan hartzea eskertzen dut.	1
Sarreretan eremu berdeak kokatu	1	Umeentzako jolasak izango lituzkeen areto bat sartuko nuke	1
Kultur Etxe eta Liburutegiaren gaineko informazio gehiago	1	Ikasketa gelak gehituko nituzke	1
Handiagoa egingo nuke	1	Jubilatuentzako lokala	2
Erakusketa gela bat sumatzen dut faltan	2		
Lurrazpiko edo lurrazaleko aparkaleku bat utziko nuke	3		
Ondo baloratzen da Latorro eta Carlos Larrea urbanizazioa proiektuan parte hartu ahal izatea	1		
Liburutegia handituko nuke	2		
Tailerrak bigarren solairura eta liburutegia lehenengo solairura eta solairuartera pasatuko nituzke	1		
Aretoaren erabilera ezberdinak jasotzeko gaitasuna da proiektuaren atalik garrantzitsuena	1		
Eskulanetarako eta lanerako aretoak botzatzen ditut faltan	2		

ERDIGUNEA		LATEORRO	
Balorazio Negatiboak			

Hasieratik jarri behar zen proiektua herritarren eskuetan: Kokapena, finantziarioa, helburuak, proiektu kulturala, etab... Hau ez da berezko parte hartze prozesu bat, oinarritik hasi behar da, faseak saltatu gabe.	1	
Ez da egokia, estetikoki gaizki	1	
Ez nago ados herriko gauza politak botatzearekin eta parkeko etxea mantentzea nahi dut.	1	
Kokapen desegokia	2	

KARPETAN JASOTAKO IDATZIZKO 56 IRITZIETATIK, %91 BERE ADOSTASUNA ERAKUSTEN DU PROIEKTUAREKIN ETA /EDO HOBETUNTZAK PROPOSATZEN DITU, ETA %9 PROZESUA ETA PROIEKTUAREKIN KRITIKOA DA.

TOPAKETA ELKARTE SOZIOKULTURALEKIN (I)

Bertaratutakoak: Ttuntturro Elkartea, Club Taurino Mazzantini, Canal 58 Tv, Basalarrina, Sociedad Micológica Laudio, Filatelia Elkartea, Rakatapla (2), Centro Gallego (2), Coral Sta. Lucia (2), Agrupación Musical San Roque (2), AMALUR Fundazioa, Coral Andere, AVILLO (2), Tétrada Literaria (5), Bai-sa-la (2), Laudioko Gazte Asanblada (3), Centro Castellano, Solastiar (2), Larra Buztingitza, Untzueta Dantza Taldea, Itxarkundia Dantza Taldea eta Xabier Ramirez (Kultura Teknikaria).

Dinamizazioa: Parte Hartuz, EHUKo herritar partaidetzako ikerketa taldea

Guztira 33 pertsona (24 gizon eta 9 emakume).

1.- Saioaren helburuen aurkezpena

Saioa Erabilera Anitzeko Aretoaren proiektuarekin batera ireki den parte hartze prozesuan dauka jatorria – 2009ko Abendua Laudioko Kultura Kontseiluan proiektua aurkeztea, 2010eko Otsailean egindoako auzpezen irekia eta 2010eko martxoaren hasieran Laudioko erdigunean eta Latorron egindako erakusketa publikoa-.

Jarraian Laudioko mapa kulturala aurkezten da, existitzen diren gune ezberdinekin, bere erabilerekin eta Erabilera Anitzeko Aretoa eta Antzokiak eta Lamuza parkearen proiektuen gauzatzeak eragingo dituen aldaketekin.

Saio honekin Erabilera Anitzeko Aretoaren proiektuaren erredakziorako erabili den behar izanen programaren gainean dauden zalantzak argitu nahi dira, eta baita gainontzeko azpiegitura eta beren erabileren inguruko zalantzak.

Azkenik esaten da maiatzaren 20an egingo den bileran eta udalerrian egiten diren **jarduera kulturalak**, Erabilera Anitzeko Aretoaren proiektuaren erredakziorako erabili den **behar izanen programa** eta udalerriko azpiegitura kulturalak kontuan izanda, hurrengo galderari erantzuten saiatuko gara:

Nola baloratzen duzu eta zein aldaketa proposatzen dituzu Aretoaren proiekturako?

Zer proposatzen duzu Aretoan sartzen ez diren jarduetarako?

Era honetan herriko kultur esparruaren jarrera edo jarrerak eraikiko ditugu korporazioak beren eztabaidetan kontutan har ditzan.

2.- Txanda Irekia

Atal honetan bileran atera ziren gaiak zerrendatu eta biltzen ditugu, kontutan izanda gehienak maiatzaren 20ko saioari begira galdera moduan egin zirela. Baita ere jasotako iritziak esan hutsagatik bilduak izan direla argitu nahi dugu, hau da, ez du esan nahi ideietako bakoitzak bertaratutako guztien babesa jasotzen duenik.

Gai Orokorrak

- Laudiok hainbeste gune kulturalen beharra ba al dauka? Gaur egun adibidez parkeko Etxe Nagusia eraberritu egin da eta, hala ere, bertan egin izan diren erakusketara oso jende gutxi hurbildu egin da.
- Beren egungo kokalekuan eroso eta konforme dauden elkarte edo taldeak ere lekuz aldatzeko arrazoiak ba al daude?
- Zer gertatuko da kultur taldeekin obrak iraun bitartean? Non izango dute egoitza?

Parkearen eraldaketa

- Gazte Asanbladak Gaztetxearen kokapenaren gainean beren ardura azaltzen dute. Kontzertuak dira Gaztetxearen jarduera garrantzitsuenetariko bat, bai taldearen dinamizaziorako baina baita finantziatzeko iturri nagusia direlako, ea horregatik beren egungo kokapena egokiena dela uste dute, etxebizitzetatik urrun egotean.
- Eraldaketa honekin parkeak bere erakargarritasuna eta zentralitatea galduko du.
- Jakin beharko litzateke parkearen proiektuan zer den behin betikoa eta zeren gainean aldaketak egin daitezken.
- Euskal Arkitekturaren "Museoa" (Institutua) ez da herriko izaerarekin at etortzen.

Altzarrateko Erabilera Anitzeko Aretoa

- Zenbait pertsonen Erabilera Anitzeko Aretoa aldean erabakitako proiektu bat dela adierazten dute, eta bertan eragina izatea zaila dela, edo oso urruti dagoela, epe luzekoa, eta ez ote den denbora galtzea eztabaida hasita noizbait egingo ote de jakin gabe. Pertsona hauetako batzuen iritziz egokiago litzateke egungo kulturaren egoeraz hitz egitea eta dagoen espazio urriaz. Beste batzuek aldiz ekarpenak egiteko garaia orain dela planteatzen dute, proiektua egiteko garaian kontuan hartuak izan daitezkeen.
- Antzokiaren gaineko zenbait zalantzak plazaratzen dira, aforoa nahikoa izango den edo ez, eta baita konbinaturiko ikuskizunak izango duen aukeraren gainean (musika-dantza, antzerkia-musika), Korralak ere bertan kokatu ahal izango diren, eta kutxa eszenikoak orkestra batek emanaldia egiteko nahikoa tamaina duen edo ez. Baita ere gauza hauetarako aurrez elkarrekin kontaktua garrantzitsua izango litzatekeela.
- Eta azkenik, galdetzen da Aretoaren kudeaketa publikoa edo pribatua izango den, kulturalak ez diren taldeek erabili ahal izango duten eta herriko jarduerak kulturalak kanpotik programatzen diren aurrean lehentasuna izango duten ala ez.

Gainontzeko azpiegiturak

- Udaletxe pareko aret balioanizta ikusirik, bertan zerbitsu bat kokatzeko aukera aztertzea eskatzen da.

Bilera bukatu aurretik CANAL58-ko ordezkariak Kultura Kontseiluan parte hartzera gonbidatzen ditu, hurrengo maiatzaren 13an ospatuko dena, osteguna. Ekarpene gehiago ez egotean bilera bukatutzat ematen da, jendeari hurrengo maiatzaren 20 leku berean eta ordu berean egingo den bilerara etortzeko gonbitea eginez.

Hurrengo bilerari begira garrantzitsua litzateke Erabilera Anitzeko Aretoaren erabilera orokorren gaineko gogoeta egitea, eta gainontzeko kultur espazioek eskaintzen dituzten aukeren gainean.

TOPAKETA ELKARTE SOZIOKULTURALEKIN (II)



Bertaratutakoak: Ttuntturro Elkartea, Canal 58 Tv, Basalarrina, Sociedad Micológica Audio, Filatelia Elkartea, Rakatapla, Coral Sta. Lucia, Agrupación Musical San Roque, AVILLO (2), Tétrada Literaria, Audioko Gazte Asanblada (3), Solastiar (2), Larra Buztingitza (2), Lankaietako Lagunak, Yin de Yan (teatro) eta Xabier Ramirez (Kultura Teknikaria).

Dinamizazioa: Parte Hartuz, EHUKo herritar partaidetzako ikerketa taldea

Guztira 20 pertsona (13 gizon eta 7 emakume).

1.- Presentación de los objetivos de la sesión.

Saioaren helburuak azaldu ostean, Latorroko Antzoki eta Kulturgunean aurreikusitako jardueren balorazioaren bitartez laburbilduta, eta baita udalerriko gainontzeko lekuek eskaintzen dituzten aukerak azalduta, bilerarako aurreikusitako dinamika azaltzera ekiten zaio, planteaturiko helburuak betetzeko nahiarekin.

Lan planteamendua hurrengo litzateke: talde txikietan Parte Hartuz-ek egindako eta aurrez markaturiko helburuekin harremana duten bi galderari erantzune behar zaie:

1. Zer deritzozu Erabilera Anitzeko Aretoaaren proposamenean jasotako jarduerari eta/edo zein aldaketa proposatuko zenituzke?
2. Eta zure iritziz Aretoan sartzen ez diren jarduerentzako, zein espazio kultural dira egokienak?

Galdera hauetarako lau talde sortu ziren. Aldi berean bi taldek lehenengo galderari erantzuten zioten bitartean beste bi taldeek bigarren galderari ekiten zioten. Eztabaidan eta proposamenak egiten rdu erdi

igarro ondoren lehenengo galderarekin egon diren taldeak bigarren galderari ekiten diote, aurretik bi taldeetako batek egin duen lanetik abiatuz; eta gauza bera bigarren galderarekin jardun diren taldeentzako, lehenengo galderara pasatuz.

Saioko fase hau bukatuta, galdera bakoitzean jasotako ekarpenak bilerara bertaratu diren pertsonak osatzen duten plenoari aurkezten zaizkio. Argipenak egin ostean eta koloretako pegatinen bitartez lehentasuna jartzera pasatzen gasa, hurrengoa kontuan izanik:

- Bertaratutako elkarte bakoitzak bozka bakarra dauka panel edo galdera bakoitzeko -pertsona bakarrak bozkatu dezake elkarte bakoitzeko-, eta bozka horrek pegatina gorri bat (3 puntu), pegatina berde bat (2 puntu) eta hiru pegatina hori ditu (puntu 1 bakoitzak), beren irizpideei jarraituz nahi duten eran banatzeko.

Jarraian proposameneren emaitza zehazten da, behin lehentasunak egin ondoren:

LEHENENGO GALDERA: Zer deritzozu Erabilera Anitzeko Aretoaaren proposamenean jasotako jardueri eta/edo zein aldaketa proposatuko zenituzke?

- **Erabilera Anitzeko Aretoa nagusiko musika eta arte eszenikoekin harremana duen espazio bat izatea, eta horrela auditorioa eraikinaren motor bezala aprobetxatua izan dadin.**

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	6	18
Berdea	4	8
Horia	2	2
Guztira		28

- **Lehenbizi taldeen beharrak argitu beharko lirateke eta gero proiektua garatu**

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	3	9
Berdea	4	8

Horia	1	1
Guztira		18

Honako hau lortutako babesaren aldetik bigarren da. Honek taldeak kokatzeko orduan hartu beharreko erabakiekin dauka harremana. Planteatzen dena lehenbizi taldeen beharrak zeintzuk diren galdetzea eta ondoren ahalik eta kokapen onena bilatzea da, talde bakoitzaren iritzia kontutan hartuz.

- **Tokiko jarduerak lehenetsi**

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	0	0
Berdea	3	6
Horia	8	8
Guztira		14

Babes gehien jasotzen duen hirugarrengo proposamena da. Orokorrean herriko taldeen jardueren babesa lehenetsunetako bat izan behar delako ideia gainean baterakotasuna egon zen.

4. Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa eta kudeaketaren gaineko zalantzak

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	0	0
Berdea	1	2
Horia	4	4
Guztira		6

Ekarpen hau batez ere horrelako proiektu batek ekonomikoki sortzen dituen zalantzetan zentratzen da: eraikina bera egiteak sortzen duen diru galera baina baita gero zerbitzuaren mantenuak ere suposatzen duena.

6. Orduak kudeatzeko orduan taldeen beharrei erantzun

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	0	0
Berdea	1	2
Horia	4	4
Guztira		6

Proposamen honek eraikinak dituen espazioen gaineko kudeaketan jartzen du arreta. Enpresa batek izan ditzakeen irizpideak baino gehiago (baldin eta azkenean kudeaketa enpresa batek egiten baldin badu) eraikinaren erabilera egingo duten taldeen beharrak izan behar dira kontutan.

- **Jardueren arteko bateragarritasuna bultzatu (insonorizazioa)**

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	0	0
Berdea	0	0
Horia	5	5
Guztira		5

Kasu honetan proposamenak esan nahi duena da garatzen diren jardueren arteko bateragarritasuna bermatu behar dela eta haien arteko eragozpenak ez egotea (adibidez zarataren kasuan).

- **Auditorio nagusiaren alboko areto balioanitza mantendu**

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	1	3
Berdea	0	0
Horia	1	1
Guztira		4

Proposamen honetan Auditorio nagusiaren alboko areto balioanitza mantentzea proposatzen da, entseguak eta beste jarduera musikalak egin ahal izateko.

- **Talde lanak egiteko ikasketa gelak**

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	0	0
Berdea	0	0
Horia	4	4
Guztira		4

Proposamen honek aurreikusitako proiektuan horrelako gelarik ez jartzea salatzen du.

- **Kudeaketarako lokala partekatzea arazo bihurtzen da**

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	0	
Berdea	1	2

Horia	2	2
Guztira		4

Proposamen honek kultur taldeei utzitako lokalak ez partekatzearen aldeko apustua egiten du.

- **Gordelekuaren garrantzia**

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	0	0
Berdea	0	0
Horia	3	3
Guztira		3

Garrantzi handia ematen zaio proposamen honetan jarduera ezberdinetan erabiliak izango diren materialak gordetzeko gordeleku egoki bat izateari.

- **Ekarpenak eragile ez kulturalen iritziarekin aberastu**

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	0	0
Berdea	0	0
Horia	2	2
Guztira		2

Proposaturiko ekimenaren barruan egindako ekarpenak udalerrri mailako beste eragile batzuen iritziekin aberastean proposatzen da, kasu honetan kulturarekin harremana ez duten eragileekin.

- **Ostalaritza ikuspegiaren gaineko zalantzak; aukera ezberdinak: eremu ostalaria ezabatzea, bakarrik kafetegi txikia eta barra batekin, jatetxea kendu, etab...**

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	0	0
Berdea	0	0
Horia	2	2
Guztira		2

Ekarpen hau batez ere horrelako proiektu batek ekonomikoki sortzen dituen zalantzetan zentratzen da: eraikina bera egiteak sortzen duen diru galera baina baita gero zerbitzuaren mantenuak ere suposatzen duena.

- **Antzokian aforo handiagoa jarduera gehiago sartu ahal izateko**

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	0	0
Berdea	0	0
Horia	1	1
Guztira		1

Proposamen honek antzokiaren aforoa handitzearen aldekoa da (400 eserleku izatea aurreikusten da).

BIGARREN GALDERA: Eta zure iritziz Aretoan sartzen ez diren jarduerentzako, zein espazio kultural dira egokienak?

- Haien arteko inkomunikazioa suposatzen duen sakabanaturiko espazioen okupazioa sahiestu, aldi berean Lamuza parkea herriko kulturaren zentraltasunezko elementu gisa bultzatuz eta tailerrak bertan mantenduz.

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	8	24
Berdea	1	2
Horia	6	6
Guztira		32

Oniritzi gehien dituen proposamena da. Lehenengo galderari zegokion panelean azaltzen ziren idei nagusiekin bat dator. Hauen arabera Alzarrateko Auditorioak musika eta arte eszenikoekin harremanatutako jarduerak bildu behar ditu, tailerrak Lamuzako parkean irautea posible eginez, eta horrela espazio honen izaera kulturala babestuz.

- Talde bakoitza bere egungo espazioetan mantentzen saiatu, lekuz aldatzea nahi duten taldeak salbu.

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	4	12
Berdea	6	12
Horia	1	1
Guztira		25

Babes gehien dituen bigarren proposamena da. Proposamen hau Lamuza Parkea herriko kulturaren erreferentzia izaten jarraitu behar duelako ideiarekin harremana dauka, eta horretarako talde kulturek beren beharrianak zeintzuk diren adierazi behar dute eta bakarrik horrela eskatzen duten elkarteak lekuz aldatu.

- **Liburutegia ahalik eta erdigunetik hurbilen kokatu dadila**

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	0	0
Berdea	3	6
Horia	7	7
Guztira		13

Liburutegia biztanleriaren gehiengoarengandik urruti dagoelako sentipena ez da Altzarrateko Auditoriora eramateko proposamenarekin konpontzen. Proposamen hau babesten duen jendearen artean zeregin horretarako Herriko Plazaren inguruko eremuek eskaintzen dituzten aukerak aztertzen egon dira, adibidez parkeko etxe nagusia edo Udaletxe Zaharra.

- **Matriz Etxea beste era bateko jarduerak hartzeko alternatiba izatea: liburutegia eta Arkitekturako Euskal Institutua.**

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	1	3
Berdea	0	0
Horia	5	5
Guztira		8

Proposamen hau bozkatu dutenek ikusten dute Matriz Etxeko goiko solairua ez dela gaur egun dagoen bezala erakusketa aretorako lekurik hoberena, irisgarritasun handiagoa izan beharko lukeelako. Eztabaidan proposatu egiten da eraberritutako espazio honetan Liburutegia edo Arkitekturako Euskal Institutua kokatzea.

Jasotako ekarpenei lehentasunak jarritakoan, 21:10etan, elkarte kulturekin egindako bigarren topaketa hau amaitutzat ematen da.

JESUS GURIDI ETA UNTZUETA PLAZAN LATIORROKO AUZOTARREKIN EGINDAKO TOPAKETAK

JESUS GURIDI-KO TOPAKETA

Bertaratutakoak: 20 pertsona (9 gizon eta 11 emakume).

Dinamizazioa: Parte Hartuz, EHUKo herritar partaidetzako ikerketa taldea

1.- Saioaren helburuen aurkezpena.

Saioaren helburuak azaldu ostean (Erabilera Anitzeko Aretoaren proiektuaren aurkezpena eta ekarpenen eta ideien jasotzea), bilerarako aurreikusitako dinamika azaltzera ekiten zaio, planteaturiko helburuak betetzeko nahiarekin.

Lan planteamendua hurrengoa litzateke: Proiektuaren ezaugarriak aurkeztea eta ondoren bertaratutako auzotarrei denbora utzi beraien ekarpenak egin ditzaten, eta iritzi hauek panel batean jasoak izan daitezten. Ondoren, eta pertsonalki, bertaratutako pertsona bakoitzak sortu diren proposamenen artean lehentasunak jarriko ditu koloretako pegatzen bitartez, hurrengoa kontutan izanda:

- Pertsona bakoitzak bozkatzeko pegatina gorri bat (3 puntu), pegatina berde bat (2 puntu) eta hiru pegatina hori ditu (puntu 1 bakoitzak), beren irizpideei jarraituz nahi duten eran banatzeko.

Aldi berean jakinarazten da bileraren erantzunekin txosten bat egingo dela eta txosten hori talde politikoei luzatuko zaiela haiek beren balorazioa egin dezaten. Bata ere aipatzen da behin prozesu guztia bukatutakoan politikarien, herritarren eta eragile kulturalen arteko topaketa bat antolatuko dela prozesua itxi eta lortutako emaitzak eta balorazioak guztiei jakiten emateko.

Lehenbizi, eta proposamenak plazaratu aurretik, proiektuaren balorazio txanda bat irekitzen da, eta orokorrean iritzi oso positiboak jasotzen dira. Proiektua orokorrean gustukoa du jendeak eta auzoarentzako oso positibotzat jotzen da, nahiz eta erabileren gaineko ekarpenak egiten diren. Hain zuzen bileraren helburua horrelako ekarpenak egitea dela adierazten da.

Jarraian proposamenen emaitza zehazten da, behin lehentasunak egin ondoren:

- **Gizarte aretorako aurreikusitako tamaina txikiegia da eta kokapena ez da egokitzat jotzen. Auzoarentzako gizarte aretoa jatetxe-kafetegia betetzen duen eremuan kokatzea proposatzen da. Baita ere gainontzeko espazioetatik banatua egotea proposatzen da.**

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	13	39
Berdea	5	10
Horia	3	3
Guztira		52

Hau da bozka gehien jasotzen dituen proposamena. Proposamen honek tamaina handiagoa eta auzoko biztanleriarentzako irisgarritasun gehiago (kalearen maila berean) duen kokaleku bat lortzea bilatzen du, eta zenbait jarduera aldi berean bateragarri egiteko nahikoa espazio izatea.

- **Gizarte aretorako aurreikusitako tamaina txikiegia da eta kokapena ez da egokitzat jotzen. Auzoarentzako gizarte aretoa jatetxe-kafetegia betetzen duen eremuan kokatzea proposatzen da, espazio guztia erabilera mistoa izango duen kafetegi-gizarte areto bat bihurtuz.**

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	7	21
Berdea	7	14

Horia	6	6
Guztira		41

Proposamen hau bigarrena da bozkak kontutan izanda. Proposamen honek tamaina handiagoa eta auzoko biztanleriarentzako irisgarritasun gehiago (kalearen maila berean) duen kokaleku bat lortzea bilatzen du, eta gaur egun Aretan edo Gardean daudenen antzera antolatuko litzateke. Ez litzateke kafetegia eta gizarte etxearen arteko banaketarik egongo eta dena eremu misto bat izango litzateke.

- **Gizarte aretorako aurreikusitako tamaina txikiegia da eta kokapena ez da egokitzat jotzen. Auzoarentzako gizarte aretoa lehenengo solairuan kokatzea proposatzen da, tailerrak eta jarduerentzako aurreikusitako eremuan.**

	Pegatinak	Puntuazioa
Gorria	0	0
Berdea	8	16
Horia	11	11
Guztira		27

Babes gutxien jasotzen duen proposamena da. Kasu honetan proposamena lehenengo solairuan bakarrik auzoarentzako erabilera izango duen aretoa izatea proposatzen da, beste ezerekin elkarbanatu gabe..

Alternatiba hauetaz gain, batez ere auzoaren gizarte aretoaren kokapenari arreta egiten ziotenak, espazio horrek izan behar dituen beharren gainean zenbait ideia identifikatu ziren, eta horien artean hurrengoak gailendu ziren:

- Haurrentzako ludoteka bat egon behar du, baina nolabait gainontzeko espazioarekin lotua, gurasoek haurrak ikusi ahal izan ditzaten.
- Espazio horretan bilerak egin ahal izateko balio behar du.

Adibide bezala Gasteizko Gizarte Etxeen erreferentziak jaso izan ditugu, antolaketa on baten eredu gisa, eta horregatik "El Pilar"-reko gizarte etxearen areto baten argazkia aurkezte dugu, eredu gisa.



Egindako ekarpenak lehenetsi ostean Jesús Guridiko auzotarrekin egindako topaketa bukatutzat ematen da.



UNTZUETA PLAZAKO TOPAKETA

Bertaratutakoak: 38 pertsonas (26 gizon eta 12 emakume).

Dinamizazioa: Parte Hartuz, EHUKo herritar partaidetzako ikerketa taldea

1.- Saioaren helburuen aurkezpena.

